



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

“Taupadak-latidos”, aldi baterako erakusketea

Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa-aretoan

- *Sandra Rilova eta Juanjo Viota artisten pinturak, garagarrilaren 9ra arte*

Bilbo, 2012ko bagilaren 13a. Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) daukien lankidetzaren emoitza da aldi baterako erakusketa barria. **"Taupadak-Latidos"** da izenburua, eta egileak fakultate horretako bi ikasle dira: Sandra Rilova eta Juanjo Viota. Bihartik eta garagarrilaren 9ra arte, Bizkaiko Batzar Nagusien administrazio-egoitzako erakusketa-aretoak (Hurtado de Amezaga 6) artista horreen 35 lan bilduko ditu. Aurkezpen ekitaldian, egileak ez eze, Batzar Nagusietako lehendakari Ana Madariaga, UPV-EHUko Arte Ederren Fakultateko Pintura Saileko zuzendari Adolfo Ramírez Escudero, eta erakusketaren komisario David García be izan dira.

Erakusketeak Sandra Rilovaren eta Juanjo Viotaren bizipen personalak eta lilurapenak transmitiduteko beharrezko adierazoten dau, pinturarean, marrazkiaren edo grabatuaren bitartez. Euren irudi iradokitzaileetan, gauza arraro eta kezkarriak, eta zorizaiztoko sentipenak adierazoteko baliabideak asko dira. Alde batetik, Sandra Rilovaren lanek giza itsuskeriaren eta gauza groteskoen obsesioa batzen dabe. Bortizkeriak, deformazioak, mozketak eta heriotzak liluratu egiten dabe egilea. Areto berean, Juanjo Viotak berregindako espazio arraroak dagoz; gehienak egunekoak, kanpoaldekoak eta koloretsuak dira, eta aurpegiak gabeko jentea, hanka desproporzionatuak edo trikimakoen gainean dagozanak erakusten ditu.

Erakusketaren aurkezpenean, Bizkaiko Batzar Nagusien lehendakari Ana Madariagak erakundeak arte ederrakaz daukan lotura estua nabarmendu dau, eta erakundearen egoitzetan ikusgai dagoan ondare artistiko aberatsaren erreposoa egin dau: Anselmo Guinea, Gustavo de Maeztu, Jorge Oteiza, Agustin Ibarrola, Jesús Mari Lazkano, Dora Salazar, Mari Puri Herrero, Iñaki Lafuente eta beste hainbeste izenek osotzen dabe bilduma, eta “benetan harro sentitzen gara horretaz”.

Madariagak adierazo dauenez, Batzar Nagusien asmoa ez da artelanen edukiontzi hutsa izatea, baizik eta “XXI. gizaldiko artea bultzatzea, eta horretarako modurik onena artista gazteei aukerea emotea da”. Hori da, hain zuzen be, gaur Batzar Nagusien erakusketa-aretoan aurkeztutako erakusketaren arrazoia. Bilboko erdigunean dagoan galeria txiki eta gazte honek 2 urte bete ditu, eta, Arte Ederren Fakultateko Pintura Sailaren lankidetzegaz, Bizkaiko artista gazteei aukera emoteko gune estrategiko eta doakoa izan gura dau. Madariagak adierazo dau proiektuak luzaroan jarraitutasuna izatea espero dauela.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

“Taupadak-latidos”, nueva exposición temporal en la Sala de las Juntas Generales de Bizkaia

- *Pinturas y grabados de Sandra Rilova y Juanjo Viota, hasta el 9 de julio*

Bilbao, a 13 de junio de 2012. La colaboración que mantienen las Juntas Generales de Bizkaia y la Universidad del País Vasco (UPV-EHU) ha fructificado en una nueva exposición temporal. Se titula "**Taupadak-Latidos**", y sus autores son dos alumnos de esta facultad: Sandra Rilova y Juanjo Viota. Desde mañana y hasta el 9 de julio, la Sala de Exposiciones de la sede administrativa de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hutado de Amezaga, 6) reunirá 35 creaciones suyas. Al acto de presentación han acudido, además de los autores, la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, el Director del Departamento de Pintura de la Facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU, Adolfo Ramírez Escudero y el comisario de la exposición, David García.

La muestra repasa la necesidad de transmitir las vivencias personales y fascinaciones de Sandra Rilova y Juanjo Viota por medio de la pintura, el dibujo y el grabado. En sus evocadoras imágenes, abundan los recursos para representar lo extraño, lo inquietante y el sentimiento de lo siniestro. Por una parte, la obra de Sandra Rilova recoge en sus obras una obsesión por la fealdad corporal, lo grotesco. Le fascina la violencia, las deformaciones, las mutilaciones y la muerte. Sus obras se comunican y entienden en la misma sala con los extraños espacios que nos plantea Juanjo Viota, casi siempre diurnos, exteriores y coloristas, que están poblados de seres sin rostro, con extremidades deformadas y en precario equilibrio.

En la presentación de la muestra, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha destacado la relación estrecha de esta institución con las bellas artes y ha repasado el rico patrimonio artístico que se puede ver en las sedes institucionales con obras de Anselmo Guinea, Gustavo de Maeztu, Jorge Oteiza, Agustín Ibarrola, Jesús Mari Lazkano, Dora Salazar, Mari Puri Herrero, Iñaki Lafuente y decenas de firmas más que componen una colección de la que “nos sentimos realmente muy orgullosos”.

Madariaga ha advertido que las Juntas Generales no quieren servir sólo de contenedor de obras, sino que “pretenden impulsar el arte del siglo XXI y que mejor forma de hacerlo que dando oportunidades a nuestros jóvenes artistas”. Este es el motivo de la exposición que hoy se ha presentado en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales, una pequeña y joven galería en el centro de Bilbao que cumple 2 años y que pretende, en colaboración con el departamento de Pintura de la Facultad de Bellas Artes, ser un espacio céntrico y gratuito para dar una oportunidad a los jóvenes valores de Bizkaia, un trabajo en colaboración que Madariaga confía en que “tenga cada vez más continuidad en el tiempo”.